

Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazioan irizpideak aldatzeari buruzko oharrak. 2021

Ohar honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazio estatistikoari buruz estatistika-organoari aldeztu aurretik emandako informazioei buruzko irizpide-aldaketak dakartzaten zenbait alderdi deskribatzen dira.

UR-MASEN ERROLDARI BURUZ

Ur-masa horien identifikazioa, mugaketa eta tipologia 1/2016 Errege Dekretuan¹ jasotzen da; hau da, bigarren plangintza-zikloko plan hidrologikoetan (2015-2021).

1/2016 Errege Dekretuaren arabera, ibaien kategoriako 135 ur-masak dute presentziaren bat EAEn. Hala ere, ibaien kategoriako bost masa modu adierazgarrian garatzen dira EAetik kanpo, eta EAEn oso garapen txikia dute², eta beste hiru goi-ibarretan daude, eta oso garrantzi txikia dute³. Zortzi ur-masa horiek ez dira aintzat hartu EAEko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazio honetan (2021).

1/2016 Errege Dekretuaren arabera, Altube - Monreal idoia urmael-konplexua masari (aintziren kategoria) L-T18 tipologia esleitu zaio; hala ere, berriazko azterlanen ondorioz⁴, tipologia L-T19ra aldatu da (Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoaren plan hidrologikoaren proposamenean jasota dago alderdi hori; hirugarren ziklorako berrikuspena: 2022-2027⁵).

¹ 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, honako hauen plan hidrologikoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen alderdi espainiarra.

² Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrologikoan: Ason II, Agüera II; eta Ebroren Demarkazio Hidrografikoan: Ihuda Molinarretik Sarasoraino, Sarasoko Ihuda Riorrojoaraino eta Ega I Istoratik Urederreraino.

³ Ebroren demarkazio hidrografikoan: Albinako urtegitik Urrunagako urtegiraino; eta masa hauek: Albina Albinako urtegiraino, eta Jugalez, Pipaóneraino; horiek ez dira ur-masatzat hartzen hirugarren plangintza-zikloan (2022-2027).

⁴ EAEko aintzirak, barruko hezeguneak eta urtegiak zaintzeko sarea. 2018-2019 ziklo hidrologikoa. CIMERA Estudios Aplicados SLk URA Uraren Euskal Agentziarentzat egindako txostena.

https://uragentzia.euskadi.eus/edukiak/informazioa_hezeguneak_2018_2019/eu_def/erantsiak/01_MEMORIA+ERANSKINA_LAG_EMB-URA_2019.pdf

⁵ Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoaren plan hidrologikoaren proiektua, hirugarren ziklorako berrikuspenera dagokiona: 2022-2027. <https://www.uragentzia.euskadi.eus/kantauri-ekialdeko-plan-hidrologikoaren-berrikuspena-2021-2027/webura00-contents/eu/>

EGOERAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Aurretiko informazioei dagokienez, 2016-2021 aldirako, **azaleko ur-masen egoera ekologikoa** ebaluatzeko sistemen berrikuspena aplikatu da, etengabeko aurrerapen teknikoen eta ezagutza zientifiko hobearen ondorioz.

Hala, oro har, egoera ekologikoaren ebaluazioa bat dator 817/2015 Errege Dekretuan⁶ adierazitakoarekin eta horrekin lotutako laginketa-, azterketa- eta ebaluazio-protokoloekin, baina aldaketa aipagarri batzuk egin dira, hala nola interkalibratzeko azken erabakia⁷, azaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gidaliburu metodologiko berriak⁸ eta⁹, eta laginketarako, analisirako eta adierazleen ebaluaziorako protokolo eguneratuak idaztea¹⁰, bai eta sistema berriak gehitzea ere.

Aldaketa horiek, oro har eta aurretiazko ebaluazioekin alderatuta, eskakizun-maila handiagoa eskatzen dute egoera/potentzial ekologiko ona edo hobea lortzeko; hau da, ingurumen-helburuak betetzeko.

Horren aplikazioak **egoera ekologikoa** eta **egoera** berriz ebaluatzea ekarri du, azken hori egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren baliorik okerrenak zehazten baitu, eta, horrenbestez, baliteke aldeak egotea aldeaz aurretik emandako informazio estatistikoekin alderatuta.

Jarraian, hona hemen ebaluazio-sistemetan izandako aldaketa nagusiak:

- **Ibaien kategoriako urrei** dagokienez, arrantza-faunaren elementua ebaluatzeko irizpide berri bat aplikatzea (CFI indizearen bertsio berrikusia¹¹).
- **Ibaien kategoriako ur eraldatu**ei dagokienez, klase-aldaketako muga espezifikoak fauna bentoniko ornogabearen kalitatearen elementuarentzat (MBf indizea) eta arrain-faunaren elementuarentzat (CFI indizea) baino ez aplikatzea.

⁶ 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitatearen gaineko arauak ezartzen dituena.

⁷ Batzordearen erabakia, 2018ko otsailaren 12koa, zeinaren bidez ezartzen baitira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauarekin bat etorritik, estatu kideen jarraipen-sistemen sailkapenaren balioak, interkalibratze-arietaren ondorioz, eta zeinaren bidez 2013/480/EB Erabakia indargabetzen baita.

⁸ Instrukzioa, Ingurumeneko estatu-idazkariarena, plangintza hidrologikoaren hirugarren zikloan ur-masen egoera ebaluatzeko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena. 2020/10/14

⁹ *Azaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gidaliburu* (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa)
https://www.miteco.gob.es/es/agua/publicaciones/guia-para-evaluacion-del-estado-aguas-superficiales-y-subterranas_tcm30-514230.pdf

¹⁰ <https://www.uragentzia.euskadi.eus/informazioa/eae-lurrazaleko-ur-masen-egoeraren-jarraipena-egiteko-protokoloak-lagin-bilketa-eta-laborategi-eta-indize-eta-neurrien-kalkuluak-egiteko/webura00-contents/eu/>

¹¹ Ibaiko arrain motaren CFI (Cantabrian Fish Index) indize espezifikoaren kalkulatzeko protokoloa. kodea: RW_CFI_2021_URA_V_2.0.
https://www.uragentzia.euskadi.eus/cfi-indizea-kalkulatzeko-protokoloa-cantabrian-fish-index-cfi_2021_ura_v_2-0/webura00-contents/eu/

- **Tarteko uren eta kostaldeko uren kategoriako urrei** dagokienez, tarteko uren eta kostaldeko uren kategoriako masetarako ezaugarri fisiko-kimiko orokorrak (mantenugaiak) ebaluatzeko irizpide berri bat aplikatzea, alde zuzenetik maila aldatzeko zeuden mugak berriz aztertu baitira¹² eta 5.
- «Bat, kanpoan; guztiak, kanpoan» irizpidea aplikatzea; hau da,
 - ibaien egoera biologikoaren urteko ebaluazioa kalitate biologikoko elementuen baloraziorik txarrenari dagokio; alderdi hori neurri batean aplikatzen zen lehen arrain-faunari zegokionez.
 - Ur-masa baten kalitate fisiko-kimikoaren egoeraren urteko sailkapena ur-masa horren kontrol-puntuen kalitate-mailarik okerrenari dagokio, eta kontrol-puntu bakoitzean aldagai bakoitzaren kalitate-mailarik okerrenak definitzen du.
- **Aintzira eta hezeguneei** dagokienez, 817/2015 Errege Dekretuaren prozedurak kontuan hartuta, gaur egun klase-aldaketaren mugei buruzko erreferentzia- eta baliozkotze-baldintzekin lotutako muga metodologiko edo estatistikoak dituzte, ornogabeen fauna bentonikoaren egoera ekologikoaren ebaluazioko Europako interkalibrazio-ariketaren bidez, IBCAEL indizearen arabera. Adituek aztertu egin dute, hezegune bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, zenbait kasutan ez dela aplikatu behar ondorioztatu dute. Altube - Monreal idioia urmael-komplexua masari dagokionez (aintziren kategoria), haren egoera ekologikoa ebaluatzeko sistemaren berrikuspenera aplikatu da (ikus 4. oharra).
- **Urtegiei** dagokienez, ez dago aldaketarik ebaluazio-sistemetan, eta 817/2015 Errege Dekretuaren II. eranskinean adierazitakoa aplikatzearen ondoriozko irizpideak eta horiekin lotutako laginketa-, analisi- eta ebaluazio-protokoloak aplikatu behar dira.
- **Lurpeko urrei** dagokienez, ez dago aldaketarik ebaluazio-sistemetan, eta 1/2016 Errege Dekretuan eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren gidaliburu metodologikoan adierazitakoa aplikatzearen ondoriozko irizpideak aplikatu behar dira⁹.

¹² *Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoko tarteko eta kostaldeko urretako mantenugaietarako egoera mailaren mugak kalkulatzea*. AZTIk Uraren Euskal Agentziarentzat (URA) egindako txostena, 80 or.
<https://www.uragentzia.euskadi.eus/dokumentazioa/2021/kantauri-ekialdeko-demarkazio-hidrografikoko-trantsizioko-eta-kostaldeko-urretako-mantenugaietarako-estatu-motaren-mugak-kalkulatzea/webura00-contents/eu/>